



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
2016/03/02

Mauro Saraviak Euskal batailoiko azkenengo gudariak erretratu ditu

Bizkaiko Batzar Nagusiek eta irabazi asmorik bako Intxorta 1937 Kultur Elkartek, Euskal Herritik eta Kataluniatik erbestera joan ziranen birloba dan Mauro Saravia egile txiletarraren argazki erakusketea aurkeztu dabe gaur Bilbon. Erakusketak, 1936ko Euzko Gudarosteko kide izandakoen erakustaldirik osoena jasoten dau. “Azken Batailoia” erakusketak Gerra Zibileko gudarien eta milizianoen erretratuak jasoten ditu, gazte ameslariz osatutako lekukotza grafikoa eskiniz. Gerratik zortzi hamarkada igaro diran arren, euren ametsek bizirik jarraitzen dabe Bizkaiko Batzar Nagusietako Erakusketa Aretoan. 27 arpegiren bitartez egin dan erakusketea Bizkaiko Batzarretako Erakusketa Aretoan (Hurtado de Amezaga kalea, 6) egongo da martiaren 29ra arte, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara, astelehenetik barikura; eta zapatuetan, eguerdiko 14:00ak arte. Sarrerea librea izango da.

Azken Batailoia izenak, Euskadin, batailoiek bajak ebezenean, unidade barrietan alkartzen zirala adierazoten dau. Horreek diranez bizirik geratzen diran azkenengo burrukalariak, Mauro Saravia argazkilariaren eretxiz hori da erakusketak izan daiketan izenburu bakarra. Egitasmoa, gerran gertau zana “zuzenean ezagutu beharretik” sortu da, Saraviaren berbetan, berak jaso ebazan familiako kontakizunak “amaitu barik” egozalako. Artista txiletarrak zuri baltzeko erretratuak atara deutsez larogeita hamar eta ehun urte dituen faxismoaren kontrako burrukalari izandakoei. Horreetako batzuk erakusketaren aurkezpeneko ekitaldian egon dira, Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako presidenteagaz batera. Ana Otadui azpimarratu dauenez, Saraviaren beharra “erlojuaren kontrako lasterketea” izan da. Adierazo dauenez, “36ko gazte hareen sentimenduak eta istorioak islatzen dituan beharra be bada. Bizirik jarraitzen dabenen erretratuak eta bizipenak. Larogeita hamar urtetik gora izan arren indarra eta bizitasuna emoten deuskuen gazte dinamikoak dira”.

Mauro Saraviaren beharrak jarraipena izango dau, bere erretratuetan 36ko gudariak eta milizianoak erakutsi ostein, bere hurrengo asmoa, Francoren Diktaduraren errepresinoa jasan eben eta hari aurre egin eutsien emakumeen bizipenak jasotea dalako. Datozan hilebeteetan Saraviak Gerraren eta Diktaduraren kontrako Erresistentziaren beste arpegi hori hurbilduko deusku bizkaitarroi. “Martiazen 8aren bezperatan, garrantzitsua da oroimen historikoa berreskuratzeko lan horren alderdi barri hori azpimarratzea”, esan dau Otadui.

Batzar Nagusietako presidentek, argazkilariak eta, Bizkaiko Batzar Nagusiakaz batera erakusketea babesten dauen Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kide dan Juan Ramon Garaik eskerrak emon gura izan deutsez gudariei eta milizianoei, euren “ereduarengaitik, erresistentziarako ahalmenarengaitik eta gaur eguneko belaunaldiei gatazka belikoen errazionaltasun eza heldu arazoteko egin dabene esfortzuarengaitik”. Bertan egon dira Luis Ortiz Alfau, Capitan Casero batailoiko gudaria; Benito Martin Barrioso, Cultura y Deporte batailoikoa; Antonio Telleria Bilbao, San Andrés batailoikoa; Baltasar Delgado Aguado UGT-3 batailoikoa eta; Gregorio Urionaguena Eusko Indarra batailoikoa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Eurakaz batera, senideak, adiskideak eta Batzar Nagusietako ordezkari-tza zabala. Batzarkideen artean Begoña Gil, Joseba Gezuraga, Josean Elgezabal, Josu Unanue, Txusa Padrones eta Meritzel Elgezabal egon ziren, beste batzuen artean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA
02/03/2016

Mauro Saravia retrata a los últimos "gudaris" del batallón vasco

Las Juntas Generales de Bizkaia y la entidad sin ánimo de lucro Intxorta 1937 Kultur Elkartea han presentado hoy, en Bilbao, una exposición fotográfica del chileno Mauro Saravia, nieto de exiliados vascos y catalanes, que recoge la más completa muestra de excombatientes del Ejército vasco de 1936 Eusko Gudarostea. La muestra "Azken Batailoia" reúne rostros de gudaris y milicianos de la Guerra Civil, convertidos en testimonios gráficos de aquella generación de jóvenes soñadores, cuyos anhelos de libertad siguen vivos en la Sala de Exposiciones de Juntas Generales, ocho décadas después de iniciarse el conflicto bélico. La exposición, construida a través de 27 rostros y 54 fotografías, permanecerá abierta en la céntrica sala bilbaína del Parlamento de Bizkaia (C/Hurtado Amezaga, 6) hasta el 29 marzo, con horario ininterrumpido de 8 de la mañana a 8 de la tarde, de lunes a viernes; y los sábados, hasta las dos del mediodía. La entrada es libre.

"Azken Batailoia" hace referencia a que en Euskadi, cuando los batallones tenían bajas, se reagrupaban en nuevas unidades. Como estos son los últimos combatientes vivos, el fotógrafo Mauro Saravia cree que el título de la muestra "no podía ser otro". "El Último Batallón" nace de la "necesidad" de conocer de primera mano lo que pasó en la guerra, ya que según Saravia, los relatos familiares que él tenía estaban "inconclusos".

El chileno ha retratado en blanco y negro a excombatientes antifascistas nonagenarios y centenarios. Algunos de ellos han acudido a la presentación de la muestra, junto con la presidenta de Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, quien ha destacado el trabajo de Saravia como "una carrera contra el reloj" y una labor "conciencizada que refleja los sentimientos e historias de aquellos jóvenes del 36. Retratos y vivencias de supervivientes. Dinámicos y juveniles nonagenarios que nos transmiten fuerza y vitalidad", ha señalado.

VIVENCIAS DE MUJERES EN VÍSPERAS DEL 8 DE MARZO

El trabajo de Mauro Saravia tendrá su continuidad ya que, tras plasmar en sus retratos a gudaris y milicianos del 36, ahora se apresta a recoger las vivencias de mujeres represaliadas y resistentes frente a la Dictadura franquista. En los próximos meses, Saravia acercará al público vizcaíno esta otra cara de la guerra y la resistencia contra la Dictadura. "En vísperas del 8 de marzo, es importante subrayar esta nueva faceta de recuperación de la memoria histórica", ha destacado Otadui.

La presidenta de Juntas, el fotógrafo chileno y el miembro de la entidad Intxorta 1937 Kultur Elkartea, Juan Ramón Garai, que junto a las Juntas Generales de Bizkaia patrocinan la exposición, han querido agradecer a los gudaris y milicianos "su ejemplo, su capacidad de resistencia y su esfuerzo" para tratar de transmitir a las actuales generaciones la irracionalidad de los conflictos bélicos. Allí, se encontraba Luis Ortiz Alfau, gudari del Batallón Capitan Casero; Benito Martín Barrioso, del Batallón Cultura y Deporte; Antonio Tellería Bilbao, del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Batallón San Andrés; Baltasar Delgado Aguado, del Batallón UGT-3; y Gregorio Urionaguena, del Batallón Eusko Indarra.

Junto a ellos, familiares, amigos y una amplia representación de las Juntas Generales. Entre los junteros y junteras acudieron Begoña Gil, Joseba Gezuraga, Josean Elgezabal, Josu Unanue, Txusa Padrones y Meritxel Elgezabal, entre otros.